

19/13 IRIZPENA

Nélida Zaitegi, lehendakaria
Ana Marta Iriarte
Josean Bueno
M^a Teresa Ojanguren
Begoña Pedrosa
Ismael Redondo
Eva Blanco, Idazkari teknikoa

Euskadiko Eskola Kontseiluaren Batzorde Iraunkorraren abenduaren 12ko bilkurara bazterrean aipatutako kideak joan ziren. Batzorde horrek adostasunez eman du ondoko irizpena: **Lanbide Heziketako Euskal Kontseilua arautzen duen Agindu proiektuari buruzkoa.**

I. AURREKARIAK

Otsailaren 22ko 100/1994 dekretuak sortu zuen Lanbide Heziketako Euskal Kontseilua, erakundeen parte-hartze organo izan zedin lanbide heziketa arautu eta ez arautuaren alorrean.

Ekainaren 28ko 4/2018 Legeak, Euskadiko Lanbide Heziketari buruzkoak, bere 20. artikuluan dio administrazio publikoen, ordezkartzarik handieneko antolakunde enpresarial eta sindikalen eta lanbide heziketako eredu konbinatuan espezializatutako ikastetxeen parte-hartzerako organoa dela, zeinetan eztabaidatu, adostu eta bilatuko baita lanbide heziketako politika guztien gaineko akordioa. Era berean, artikulua horrek dio Legea indarrean jarri eta urtebeteko epean LHEKren osaera eta eginkizunak zehaztuko direla.

II. EDUKIA

Dekretu proiektu honek 20 artikulua dauzka 3 kapitulutan banatuta, 3 xedapen iragankor, xedapen indargabetzaile 1 eta 2 azken xedapen, eta haxe da edukia:

1. kapitulua (1. artikulutik 3.era): LHEKren izaera eta eginkizunak: 1. artikulua LHEKren xedea, izaera eta atxikipena zehazten ditu, eta 2. artikulua bere eginkizunak ezartzen ditu. 3. artikulua dio Kontseilu horrek urtero egingo dituela bere jardueren memoria bat eta Lanbide Heziketaren egoerari buruzko txosten bat.

2. kapitulua: LHEKren osaera (4. artikulutik 12.era)

4. artikulua dio Kontseiluak 25 kide izango dituela.

6. artikulua dio beharrezkoa dela ordezkariak izendatzea.

7. artikulua aipatzen du gizonen eta emakumeen presentzia orekatua izan behar dela LHEKko kideak izendatzean.

8. artikulua zehazten du zein prozedura erabiliko den patronal eta sindikatu etako ordezkari izango diren kideak izendatzeko.

9. artikulua dio Lanbide Heziketan eskuduna den Sailaren Agindu bidez izendatu eta kargugabetuko direla organo honetako kideak.

10. artikulua zehazten du zenbat iraungo duen LHEKko kideen agintaldiak.

11. artikulua organoa berritzeko prozedura ezartzen du.

3. kapituluak (13. artikulutik 20.era): antolaketa eta funtzionamendua

13. artikulua dio Sailaren titularra izango dela organoko presidentea, eta bere eginkizunak zerrendatzen ditu.

14. artikulua LHEKko kideen eginkizunak zehazten ditu.

15. artikulua idazkaria izendatzeko modua ezartzen du eta bere eginkizunak zehazten ditu.

16. artikulua Kontseiluaren funtzionamendua aipatzen du: Osoko Bilkura eta Batzorde Iraunkorra, laneko batzordeak sortzeko aukerarekin.

17. eta 18. artikuluetan azaltzen da Batzorde Iraunkorraren eta Osoko Bilkuraren osaera, akordioak adosteko prozedurak eta euren eginkizunak.

19. artikulua laneko batzordeak eratzeko prozedura ezartzen du.

20. artikulua kontseiluko langileen atxikipen organiko eta funtzionalari buruzkoa da.

Lehen Xedapen Iragankorrak dio, Lanbide Heziketako eredu konbinatuan espezializatutako ikastetxeen Euskal Sarea ezarri bitartean, Lanbide Heziketako Ikastetxe Integratuen ordezkarien artetik aukeratuko direla eredu konbinatuan espezializatutako ikastetxeetako 4 ordezkariak.

Bigarren Xedapen Iragankorrak dio lanbide heziketako sistema bateratuko zuzendaritza organoa sortu bitartean (Lanbide Heziketari buruzko Legearen 19. art.), hezkuntza sistemako lanbide heziketan eskuduna den Saileko titularrari dagokiola LHEKko presidentetza.

Hirugarren Xedapen Iragankorrak dio Barne Antolaketako Arautegia –azaroaren 22ko 448/1994 Dekretuaren bidez onartua- indarrean egongo dela berri bat onartu bitartean.

Xedapen indargabetzaileak indarrrik gabe uzten du otsailaren 22ko 100/1994 Dekretua – LHEK sortzen eta arautzen duena-, bai eta Dekretu hori aldatzen duen 222/1998 Dekretua.

Lehen Azken Xedapenak dio Dekretu hau indarrean sartu ondoren izendatuko direla LHEKko kideak (titularrak eta ordezkoak) eta idazkaria. Bigarren Azken Xedapenak adierazten du noiz sartuko den indarrean Dekretua.

II. BALORAZIO ETA PROPOSAMENAK

Lanbide Heziketari buruzko Legearen laugarren kapituluak Lanbide Heziketaren koordinazio-, plangintza-, zuzendaritza-, kudeaketa- eta aholkularitza-organok

arautzen ditu. Hauexek dira: Lanbide Heziketako koordinazio organo gorena: sail arteko organo bat da, lanbide heziketaren alorreko politika orokorren inguruko irizpideak ezartzen dituena.

- Lanbide Heziketako sistema bateratuaren zuzendaritza organoa: organo betearazlea da, eta bere ardura da lanbide heziketaren alor osoaren zuzendaritza, antolaketa eta plangintza egitea.
- Azkenik, Lanbide Heziketako Euskal Kontseiluaren eginkizunak birdefinitzen ditu, eta esaten du bere ardura dela lanbide heziketako sistema ebaluatzea, 9. kapituluan ezarritako moduan.

Bestalde, 11. artikulua Lanbide Heziketako Eredu Konbinatuan Espezializatutako Ikastetxeen Euskal Sarea definitzen du. Era berean, artikulua horrek dio Legea indarrean jarri eta urtebeteko epean zehaztuko direla LHEKren osaera eta eginkizunak.

Nahiz eta legeak aurreikusten zuen Lanbide Heziketako koordinazio organo gorena eratu behar zela Lanbide Heziketari buruzko Euskal Legea argitaratu (2018ko uztailean) eta handik sei hilabetera, organo hori eratu gabe dago oraindik eta ez da garatu ezta ere eredu konbinatuko ikastetxeen sarearen araudia. Horrek guztiak eragina dauka eskuartean dugun dekretuan.

Hona hemen arau honen alderdi garrantzitsuenak:

- o **Eginkizunak:**

Indarrean dagoen dekretuan ez bezala, Lanbide Heziketako Euskal Plana egitea ez da Kontseilu honen eginkizuna, baina proposamenak aurkeztu beharko ditu eta txosten bat egin beharko du Plan hori onartu baino lehen; onartu ondoren, berriz, gainbegiratu egin beharko du eta jarraipena egin beharko dio. Gainera, lehenago aipatu bezala, Kontseiluak funtzio ebaluatzaile handiagoa du Bizialdi Osoko Ikaskuntzari buruzko Legean eta Lanbide Heziketari buruzko Legean jasota dauden hainbat alderdiren inguruan, zehazki hauetan:

- gaitasunak aitortu, ebaluatu eta egiaztatzeko sisteman (Bizialdi Osoko Ikaskuntzari buruzko Legearen 31.5 artikulua)
- lanbide heziketako euskal sistemaren prestakuntza- eta ikaskuntza-jarduerak ebaluatu beharko ditu hiru urterik behin (Lanbide Heziketari buruzko Legearen 33. artikulua).
- lanbide heziketako eredu konbinatua garatzeko jardueren sustapen-programen garapena ebaluatu beharko du hiru urterik behin (Lanbide Heziketari buruzko Legearen 33.1 artikulua)
- lanbide heziketa duala sustatzeko programak ebaluatu beharko ditu hiru urterik behin (Lanbide Heziketari buruzko Legearen 33.2 artikulua)

Kontseilua ados dago, uste du ebaluazioa garrantzitsua eta beharrezkoa dela eta horregatik pentsatzen du esleitutako eginkizunak egokiak direla.

○ **Osaera eta kideen izendapena:**

Kontseiluak 25 kide izaten jarraituko du:

- Administrazioaren 7 ordezkari
- Antolakunde enpresarialen 7 ordezkari
- Sindikatuen 7 ordezkari
- Lanbide Heziketa konbinatuko ereduari espezializatutako ikastetxeen 4 ordezkari

Presidentetza, gaur egun Hezkuntza Saileko titularrari dagokiona, aldatu egingo da: Lanbide Heziketako sistema bateratuaren zuzendaritza organoa beste sail bati atxikiko zaio (oraindik ez da erabaki zeini) eta sail horretako titularrak izango dira kontseiluko presidentea. Presidenteordearen kargua, lehen Laneko sailburuordeari zegokiona, desagertu egingo da.

g) taldeko kideak, Lanbide Heziketako ikastetxeen ordezkariak, Lanbide Heziketako eredu konbinatuan espezializatutako ikastetxeetako ordezkariak izango dira.

Gorago aipatu bezala, ikastetxe sare hori ez dago sortuta oraindik.

Bestalde, Lanbide Heziketako ikastetxe hitzartuak biltzen dituzten antolakundeek izendatuko dituzte ikastetxe horien ordezkari izango diren zuzendariak, eta ez titularrek, orain arte egiten zen bezala. Aldiz, Hezkuntza sailburuak izendatuko ditu ikastetxe publikoen ordezkari izango diren zuzendariak.

Une honetan ez dakigu zein ikastetxe sartuko diren eredu konbinatuko ikastetxe espezializatuen sarean; hala ere, Kontseilu honek uste du beste mota batzuetako ikastetxeek ere aukera izan behar luketela parte hartzeko.

Bestalde, ikastetxe publikoei dagokienez, uste dugu ikastetxe horiek biltzen dituzten antolakundeek izendatu beharko lituzketela euren ordezkariak, ikastetxe hitzartuetan bezala.

- **Kontseiluko kideen izendapena:** 8. artikulua dio antolakunde enpresarial eta sindikaletako ordezkariak euren ordezkagarritasunaren arabera izendatuko direla, eta ordezkaritza handieneko erakundeetako kideen presentzia bermatuko dela.

Kontseilu honek uste du 7 ordezkari sindikalen multzoan sartu beharko lirakeela irakaskuntza sektorean ordezkaritza handiena duten sindikatuetaordezkariak.

Bestalde, posible izango da antolakunde bateko ordezkari kopurua handitzea, baldin eta ordezkaritza duen beste antolakunde batek ez badu ordezkariarik izendatu

horretarako ezarritako epean. Izendapen bat proposatzen duenean, hasierako ordezkari kopuruak berrezarriko dira.

Kontseilu honek uste du hartutako erabakien gaineko erantzukizuna defendatu egin behar dela eta izendapen hori mantendu egin beharko litzatekeela agintaldiaren amaierara arte.

3. eta 4. atalek diote aurreikusitako arauak berdin aplikatuko direla postu bat hutsik badago edo ordezkari batek behin eta berriro huts egiten badu saioetara. Dena den, ez dago argi arau horiek sindikatu eta antolakunde enpresarialeiei bakarrik aplikatzen zaizkien edo berdin balio duten zuzendarien multzoko kideentzat zein administrazioaren ordezkariarentzat.

Kontseiluak uste du argitu egin behar dela alderdi hori eta, erabakitakoaren arabera, artikulua izenburua ere bai.

○ **Ordezkarien agintaldiaren iraupena:**

Agintaldiak iraungo du izendapena adostu duen gobernuak adina, eta gobernuaren agintaldia amaitzean amaituko da karguen indarraldia ere, nahiz eta ordezkariak karguan jarraituko duten euren ordezkoak izendatu arte.

11. artikulua arabera, gobernuaren agintaldia amaitzen denean, presidentek ordezkari taldeei adieraziko die has ditzatela izendapenak egiteko barne-prozesuak, eta hilabeteko epea izango dutela ordezkari berriak jakinarazteko.

Halere, kontuan hartu behar da presidentetzako titularra gobernuko kidea dela eta, beraz, agintaldia amaituta izango duela eta jardunean egongo dela, administrazioko gainerako ordezkari guztiak bezala. Ondorioz, ordezkari berriek ezingo dute kargua hartu edo berri gobernu berria eratu arte.

Horregatik, Kontseiluak proposatzen du 11. artikulua aldatzea, ondoko hau adieraziz: "Gobernu berria eratzen denean, presidentek..."

○ **-Presidentetza**

13. artikulua arabera, *zein sailletara atxikita dagoen Lanbide Heziketako sistema bateratuaren zuzendaritza organoa, sail horretako burua izango da kontseiluko presidente.*

Lanbide Heziketari buruzko Legearen 19. artikulua definitzen du organo hori, eta ezartzen du Lehendakariak zehaztuko duela zein Saili dagokion Lanbide Heziketaren zuzendaritza, antolaketa eta plangintza egitea.

Bestalde, 1. artikulua dio LHEK hezkuntza sistemako lanbide heziketan eskuduna den Sailari atxikiko zaiola, eta baita ere bere langileak (20. art.).

Hau da, gerta liteke organo honen presidentetza Hezkuntza Saila ez den beste sail baten esku gelditzea –eta, ondorioz, sail horretako titularra izatea kontseiluko presidentea-, baina Kontseilua bera eta bere langileak Hezkuntza Sailari atxikita egotea. Uste dugu alderdi horiek argitu egin behar direla kontseilu hau arautu baino lehen.

o **Akordioak adosteko prozedura**

17. eta 19. artikuluek arautzen dute Osoko Bilkuran eta Batzorde Iraunkorrearantz akordioak adosteko prozedura. Artikulu horietan esaten da adostasun bat lortzeko beharrezkoa izango dela lau taldeetako hiruren aldeko botoa, eta administrazioaren aldeko botoa ere beharrezkoa izango dela beti. Akordiorik lortzen ez bada, hurrengo bileran nahikoa litzateke administrazioaren aldeko botoa izatea.

Irizpide hau ez zaigu oso egokia iruditzen, kontuan izanik LHEK parte-hartze organo kolegiatu bat dela, erabakimenik gabea, eta bere eginkizunetako bat dela akordioak bilatzea.

Bestalde, talde bakoitzaren barruan, bilerara joan diren kide guztien gehiengo sinplez erabakiko da botoa. Horrek berdinketa asko sortu ditzake, batik bat ikastetxeetako zuzendarien taldean, bi ikastetxe publikoetakoak izango direlako, eta beste bi hitzartuetakoak.

Baldin eta organismo honen helburua benetan bada akordioak bilatzea, Kontseiluak uste du kendu egin beharko litzatekeela administrazioaren aldeko botoa beharrezkotzat jotzen duen irizpidea, parte-hartzea hoztu dezakeelako.

Gainera, argitu beharko litzateke kalitateko botorik badagoen ala ez, berdinketak ebazteko beste formula batzuk aztertuz eta akordioak eta gehiengoak bideratuz.

4. atalean esaten da Kontseiluaren Osoko Bilkura urtean behin bilduko dela ohiko saioan, eta posible dela, orobat, ez-ohiko saio bat egitea.

Kontseilu honek uste du zehaztu egin beharko litzatekeela zein gaik behar duten Osoko Bilkuraren onarpena, esate baterako, 3. artikuluan jasotzen diren Txostenak edo memoriak.

o **Batzorde Iraunkorraren osaera:**

18. artikulua zehazten du Batzorde Iraunkorrak 17 kide izango dituela: lehen hiru multzoetako bost eta ikastetxeen bi ordezkari.

Administrazioaren ordezkarien taldean, presidentez gain, Hezkuntza Saileko beste bi ordezkari egongo dira, Enplegu Saileko beste bat eta Industria eta Nekazaritza Saileko beste bat.

Foru Aldundietako ordezkaria bakarrik geldituko litzateke Batzorde Iraunkorretik kanpo (indarrean dagoen araudian ez bezala). Bestalde, batzorde horretan egongo dira Osoko Bilkuran dauden Hezkuntza Saileko bi kideak eta baita ere Industria eta Nekazaritza Saileko ordezkari bakarra.

Kontseiluak uste du, Osoko Bilkurarekin alderatuta, kide gehiegi direla (% 68) euren lana ondo egiteko.

Irizpen hau zure erabakiaren menpean geratzen da.

Bilbon, 2019ko abenduaren 13an

IDAZKARI TEKNIKOA

Sin.: Eva Blanco

Ikus-Onetsia

LEHENDAKARIA

Sin.: Nélida Zaitegi

HEZKUNTZA SAILBURU ANDREA